

Tokiko Agenda 21 Batzordearen 2014ko urtarrilak 23ko bilerako ondorio nagusien sintesia

- **Erosi eta kontratatzeko eskualdeko zerbitzua abian jartzea:** udalek onartu beharreko koadroa eta dokumentazioa aurkeztu dira.
- **BFaren diru-laguntzak. TA21, Eraginkortasun energetikoa:** udaletan Arrankudiagan egindako eta Etxebarrin planteatutako ikuskapen-lanaren antzekoa egiteko aukera planteatu da. "Multiegoitza zerbitzua" delakoaren eskabidea bidaltzearen garrantzia gogorarazi da.
- **BFaren laguntzak. 5. edukiontzia:** Frakzio organikoa biltzeko eskualdeko kontrataziorako baldintzen azterketa tekniko eta ingurumenekoaren dokumentazioa eman da. "Frakzio organikoa biltzeko zerbitzua ezartzeko egutegia" aurkeztu da.
- **Udaltalde 21 Nerbioi-Ibaizabalen 10. urteurrena:** ospakizun-planteamendua aurkeztu da.
- **Lankidetz hitzarmena URArekin:** Udaltalde 21 Nerbioi-Ibaizabal eta URA-Uraren Euskal Agentziaren artean eskualde mailako lankidetz hitzarmena sinatzeko aukera proposatu da.
- **Bisitak:** lehenengoa gogorarazi da: Ur Partzuergoaren Galindoko HUA, Uraren Nazioarteko Egunaren inguruan, martxoaren 25ean, 10:30ean.
- **Frackinga eskualdean:** eskura dagoen informazioa udalen artean trukatzea planteatu da.
- **Batzordearen hurrengo bileretarako proposamena:** otsailaren 20an, 09:00etan, eta martxoaren 20an, 09:00etan (jarraian, Sozietate Mugatuaren Batzar Nagusia, 11:00etan).